

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org



HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien lehiaketa abian jarri zenetik, lehiaketa horretan saridun izan diren lanen inguruko artikuluei urtero ematen dio lekua BAT Aldizkariak. Aurtengo edizioan, gainera, ezin izan ditugu nahi genituen artikulua guztiak bildu zenbaki monografiko honetan, eta, horregatik, lehiaketan parte hartu duten lanen inguruko artikulua batzuk 2014ko lehen zenbakian jasota emango ditugu, BAT 90ean.

HAUSNARTU lehiaketa lehen edizioan finkaturiko helburuari lotzen zaio: "...euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena duten

ikerlariak eta oraindik euskararen eremura hurbildu ez direnak [ere] gonbidatzea, modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarriak zabaltzeko eta aberasteko asmoarekin". Aurtengo edizioan, jadanik VI.a, soziolinguistikaren esparru zabaleko ikerketak bildu dira eta gustu handiz jartzen dugu irakurlearen esku lan horien mami nagusia.

HAUSNARTUko VI. edizio honetan **lehen saria** jaso duen ikerketa, akademia-esparrutik harago, lan-munduan buruturiko lana da. *Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako* izenburuarekin aurkezturiko ikerketak lantokietako euskararen ahozko erabilera zenbatekoa (asko edo gutxi) eta zeren arabera den (zein faktorek eragiten duten horretan) aztertzeko ikerketa da. No-

lanahi ere, ez da deskripzioan soilik geratzen; aldiz, diagnostiko zorrotzaren ondorioz erabilera areagotzeko interbentzio-moduak ere proposatzen ditu. Ikerketa **Haritz Goikoetxea EMUN Hizkuntza Zerbitzuak Kooperatibako** teknikariak burutu du.

Lehiaketaren **bigarren saria Garbiñe Bereziartuak** jaso du, *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo* izenburupeko lanagatik, bere doktore tesiaren oinarri den ikerketa aurkeztuz. Ikerketa-gaia, beraz, gazteen hizkuntza idatziaren erabilera formala eta informala da sortzen ari diren komunikazio-modu berriak arakatzuz, eta bereziki arreta jarrita hizkuntza gutxia-gotuaren ingurunearen ezaugarrietan.

Sormen-ekosistema bat euskarazko komunikazioarentzat du izenburutzat **hirugarren saria** jaso duen ikerketa-lanak. Egileak Mondragon Unibertsitateko **HEZIKOM ikerketa-taldeko Aitor Zuberogoitia, Goio Arana, Eneko Bidegain eta Txema Egaña** dira. Ikerketa horretan, euskarazko komunikabideek dituzten erronkei erantzuteko diagnosi egoikiaren beharra azpimarratuz, erantzun ekosistemikoa proposatzen dute, non komunikabideak, unibertsitateak eta administrazio publikoak elkarlanean aritu behar duten ezinbestean. Jakina da digitalizazio-garaiak komunikazioaren esparruari egundoko aldaketak ekarri dizkiola, eta horregatik da

inportantea egileen iritziz, ikuspegi bateratu ekosistemiko hori garatzea, bestelakoan berehalako gabeziak antzemango baitira.

BAT aldizkariak HAUSNARTU lehiaketan parte hartu duten beste hainbat ikerlan interesgarriren berri ere eman nahi du zenbaki honetan. Horien artean dago, **Itxaro Artolak** buruturiko *Euskararen aingura lekuak Arrasateko gazteen hizkuntza-portaeran Zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz* lana. Azken urteotan eremu eta lurralde desberdinetan gogoetatuturri den gazteen erabileran kokatu du ikerketa, Arrasateko gazteen euskararen erabileran. Izan ere, gune euskaldun honetan gazteen euskararen erabilera ez dirudi espero zitekeena bezain handia denik. Horregatik, ikerketaren helburua izan da, alde batetik, gazte horiengan euskaraz egiteko gogo sortzeko eta ohitura finkatzeko zein faktore soziolinguistikok errota dituzten jakitea eta bestetik, zein harreman-saretan darabilten euskara aztertzea.

Karmelo Ayestak eginiko *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntz bidaia* artikulua soziolinguistikaren esparru klasikotik harago doan ikerketa baten aurkezpena da. Interesgarria iruditu zaigu, besteak beste, hizkuntza-portaeren aldaketan oinarritzko galderei erantzun nahia islatzen duelako. Esate baterako, zer aldagaik eragiten du hizkuntza-jokabidea aldatu eta euskaraz bizitzen saiatzeko ahaleginean murgiltzea? Zer gaitasun landu behar dira prozesua arrakastatsua izan dadin? Ikerketan galdera horiei erantzuteko proposamen zehatzak egiten dira, hala nola, motibazioa indartuagoa izateko norberaren asmo transzendentaletan eta balioetan oinarritzea edota gaitasun emozionalak lantzea. Ikuspegi horretatik, ekarpen interesgarriak egiten direla iritzi diogu.

Gorka Blancok aspaldian erdaldundutako Arabako Barrundiako biztanleek prozesu horri buruz duten iritzien inguruko azterketa burutu du *Hizkuntza-ordezkapena: Araba eta Barrundiako kasuak izenburupeko* lanean. Araban eta Barrundian euskararen presentzia historikoaren peskizan bilaketa bibliografikoa burutu du egileak, bertako euskararen desagerpenaren kronologia arrazoitua eginez. Hala ere, oso interesgarria da bertako biztanleen euskararen desagerpenaren inguruko iritziak bildu izana, iritzi horiek islatzen baitute neurri handi batean euskararen aldeko jarrera irmoa.

Profezia autobeteak euskararen i(ra)kaskuntzan eta erabileran lana **Miguel Galicia** eta **Sergio Foruria** irakasleek burutu dute, euren esperientzia dozentean oinarriturik. Egileen ikuspegitik euskararen normalizazioan traba handia izaten dira norberaren faktore subjektiboek. Eta faktore subjektibo horien artean leku aproposa hartzen du “autobetetzen den profezia” moduan ezagutzen den *Tho-*

masen teorema; alegia, nahikoa dela pentsatzea (edo pentsaraztea) zerbait erreala dela, erreala balitz bezalako ondorioak izateko. Horregatik, gizartean zabalduta dauden hainbat mitoren faltsutasuna azaleratu eta indargabetzea du helburu lanak, eta proposatu nahi du bestelako pentsamendu “positiboagoak” aktibatzea euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko oso garrantzizkoa dela.

Zenbaki honi amaiera emateko **Estitxu Harignordoquyk** buruturiko *Euskara Batuaren pertzepzioa Ipar Euskal Herrian* lana aldatu dugu hona. Ipar Euskal Herrian euskara batuaren pertzepzioa zer-nolakoa den haute-matea izan da ikerketaren helburua, Baigorriin, Senperen eta Maulen galdetegi baten bitartez bildutako datuen bitartez eginikoa. Elkarrizketatuen artean euskaraz hitz egiten eta ez dutenak daude, eta adin eta giro sozial desberdinetakoak. Bestalde, hiru ikastetxeetan ere egin da datu-bilketa. Artikuluan, hortaz, ikerketa horren emaitza aurkeztuko da.

Ikus daitekeenez, beraz, soziolinguistikaren esparru zabal-zabalaren hainbat lekukotasun eskaintzeko moduan izan gara zenbaki honetan, horiek guztiak euskararen erabileraren normalizazioan lagungarri izatea dutela helburu oso kontuan hartuta. Irakurlearen esku geratzen da orain horien balorazioa egitea. •